ASOCIACION AMEZTI-TXIKI
AMEZTI-TXIKI GURASO ELKARTEA

CEIP ZABALGANA HLHI
Nazio Batuak 10
01015 Vitoria-Gasteiz

# RESUMEN - 2016/01 - LABURPENA

Gogoratzen dizuegu talde guztiak zabalik daudela parte hartu nahi duenarentzako.
Os recordamos que todos los grupos están abiertos a quien quiera participar.

**Orokorra**

Guraso elkarteak, "Vitoria-Gasteizen Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestua"-rekin bat egin du. Blogean aurkitu dezakezue (2016 urtarrilean).

Bestalde, hilabete honetan istripuetarako borondatezko asegurua kobratu dugu. Azkenean 94 umerentzako eskatu dute.

**Agate deuna**

Santa Ageda kantatzera aterako gara Mariturri eskolarekin eta auzo elkartearekin. Haiekin batera antolatu ditugu ibilbidea eta jaitxoa otsailaren 4rako. Horrela, segida emango diogu auzoko elkarlanari, urterik urte Olentzero festa ospatzeko hain emaitza positiboak eman dituena.

**Patio ezberdina**

Kakorratz tailerrak antolatuko ditugu, otsailean hasiko dira. Hormetan muralaren bat margotzeari buruz ere hitz egin dugu.

**Institutua**

Urtarrilaren 22an bilera izan genuen lurralde ordezkariarekin. Gai hauek jorratu ziren:

ZABALGANA INSTITUTUAREN OBRAK

Obrak egiteko epeak ondo doaz. Asmoa da 2016ko uda baino lehenago hastea. Obra amaitzeko 18-20 hilabete daude. Horrek esan nahi du 2018ra arte egongo direla (bi ikasturte) behin betiko eraikinetik kanpo.

ZABALGANA INSTITUTUKO IZEN-EMATEA

1.- Aldez aurretiko izena emateko ZABALGANA HLHIan egin behar da. Ikasleek inprimakia eraman dute etxera. Bete ondoren, zuzendaritzara eraman behar dira urtarrilaren 25a baino lehen.

2.- Zabalgana BHIra atxikita dauden zentroak hauek izango dira: Zabalgana HLHI, Mariturri HLHI eta Miguel de Cervantes HLHI (D eredua).

3.- Zabalgana BHI oraingoz Ramiro de Maeztu UBIn kokatuko da, Etxalde kalean zenbaki gabe. Mendizabalaren inguruan.

4.- Ikasleentzako garraioa bermatuta dago baldin eta ikaslearen bizilekutik Ramiro de Maeztu UBIra 2 km. baino gehiagoko distantzia badago. Autobusaren ibilbidea eta geltokiak zehazteke daude oraingoz. Garraioa bermatuko da ikasleak behin-behineko eraikinean dauden bitartean.

5.- Institutuak jardunaldi jarraitua izango du, segur aski 08:30etik 14:30era. Ordutegi horri eutsiko zaio behin-behineko eraikinean dauden bitartean. Horren ondoren berriro aztertuko da gaia.

**General**

El AMPA se ha adherido al "Manifiesto a favor de la Escuela Pública Vasca en Vitoria-Gasteiz". Lo podéis descargar desde el blog (enero 2016).

Por otra parte, este mes se ha hecho el cobro del seguro voluntario de accidentes. Finalmente lo han solicitado para 94 niños/as.

**Santa Águeda**

Siguiendo la línea de trabajo colaborativo en el barrio, que nos va funcionando año tras año en la fiesta de Olentzero, este año vamos celebrar conjuntamente también la festividad de Santa Águeda. El 4 de febrero saldremos por el barrio a cantar junto con el colegio Mariturri y la asociación vecinal.

**Un patio diferente**

Hemos organizado unos talleres de ganchillo, que se harán en febrero. También hemos estado hablando acerca de pintar algún mural.

**Instituto**

El 22 de enero, tuvimos reunión en delegación. Se han tratado los siguientes temas:

OBRAS INSTITUTO ZABALGANA

Los plazos para de proyecto de obras van bien. Se pretende que las obras comiencen antes del verano de 2016. Tienen entre 18-20 meses para realizar la obra. Eso implica que hasta 2018 (dos cursos) tendrán que estudiar fuera del edificio definitivo.

MATRICULACION INSTITUTO ZABALGANA

1.- La pre-matriculación se hará en el CEP Zabalgana. L@s alumn@s han llevado a casa una instancia para rellenar en casa. Los papeles los recogerán en dirección la semana del 25 de enero.

2.- Los centros que estarán adscritos al IES Zabalgana serán CEP Zabalgana, CEP Mariturri y CEP Miguel de Cervantes (modelo D).

3.- La ubicación provisional para el IES Zabalgana será el IBD Ramiro de Maeztu que está situado en la C/El Caserío s/n. En la zona de Mendizabala.

4.- El transporte de l@s alumn@s está asegurado para los casos en los que desde el domicilio hasta el IBD Ramiro de Maeztu haya más de 2 km. El recorrido y las paradas del autobús aún está por determinar. Esto será así mientras l@s chavales estén en la ubicación provisional.

5.- El horario del instituto será jornada continua, probablemente de 8h30 a 14h30. Esto será así mientras l@s chavales estén en la ubicación provisional. Después se volverá a estudiar el tema.

CEIP ZABALGANA HLHI
Nazio Batuak 10
01015 Vitoria-Gasteiz



6.- Ez da jantokirik egongo. Hori horrela izango da behin-behineko eraikinean dauden bitartean. Horren ondoren berriro aztertuko da gaia.

7.- Ekipamenduari dagokion guztia (ordenagailuak, arbel digitala, liburutegia...) lurralde ordezkaritzatik kudeatuko da, ikasturtea hasteko orduan dena prest egon dadin.

8.- Oso litekeena da Zabalgana BHI liburu solidarioaren programari atxikitzea.

Otsailean jarraituko dugu harremanetan lurralde ordezkariarekin, institutuko funtzionamenduari buruzko alderdi praktikoak zehazteko, hala nola irakasleak, ekipamendua etab. Eta jarraituko dugu lanean "Hazi eta Hezi" taldearekin, auzoan hezkuntza publiko eta kalitatekoaren alde.

6.- No habrá servicio de comedor. Esto será así mientras l@s chavales estén en la ubicación provisional. Después se volverá a estudiar el tema.

7.- Todo el tema de equipamiento (ordenadores, pizarra digital, biblioteca...), se va a gestionar desde delegación, para que cuando comience el curso esté todo listo.

8.- Es bastante probable que el IES Zabalgana se acoja al programa del libro solidario.

Para febrero, seguiremos en comunicación con delegación para seguir concretando aspectos prácticos sobre el funcionamiento del instituto, profesorado, equipamiento, etc. Y seguiremos también trabajando en el grupo "Hazi eta Hezi", por la educación pública y de calidad en el barrio.

**Mugikortasun osasungarria**

Lanean jarraitzen dugu lan-taldean. Asmoa da apirilean-edo martxan jartzea.

**Movilidad saludable**

El grupo de trabajo sigue trabajando y preparando el tema con la intención de que esté listo para implantarse sobre abril.

**Bigarren eskolazaina**

Zinegotziarekin hitz egiteko asmoa dugu. Lakuabizkarrakoek deitu digute elkarrekin lan egiteko. Erantzuna izatean elkartzekoak gara.

**Segundo bedel**

Tenemos intención de juntarnos con el concejal. Nos han llamado de Lakuabizkarra para trabajar con nosotros/as. Nos queremos reunir en cuanto tengamos una respuesta.

**Jaia**

Jai batzordea bildu da eta eguna aukeratu dugu: ekainaren 4a. Aztertzen ari gara gauza berriak egitea. Oraingoz ideiak aztertzen eta aurrekontuak eskatzen ari gara. Ideietako bat da jaia beranduago hastea.

**Fiesta**

Reunida la comisión de la fiesta, ya se ha elegido el día: el 4 de junio. Se está planteando hacer cosas diferentes a otros años, de momento se están valorando ideas y pidiendo presupuestos. Una de ellas es que la fiesta comience más tarde.

**Ortua**

Urtarrilean zehar jarraituko dugu bilerak egiten irakasleekin eta gure lan-taldean bertan.

Otsailaren 23an, asteartea, 16:45ean, tailerra egingo dugu: "Elur panpina / aloe berazko krema". Zuek denok gonbidatzen zaituztegu. Baratzean egongo gara. Eguraldi txarra eginez gero, esperimentazio gelan.

**Huerto**

Durante el mes de enero hemos continuado las reuniones tanto con el profesorado como la de coordinación de nuestra comisión.

Para el martes 23 de febrero a las 16:45 os invitamos al taller "Muñeco de nieve / crema de aloe vera" donde podremos elaborar nuestra propia crema. Nos vemos en la huerta y en caso de mal tiempo en la gela de experimentación.

**Eskolaz kanpokoak**

Hilabete honetan, eskolaz kanpoko ekintzekin ibili gara. Hasieran arazoak egon ziren TPVarekin, baina dirudienez konpondu dira.

**Extraescolares**

Este mes hemos estado con el segundo pago de las extraescolares. Hubo algunos problemas con el TPV, pero parece ser que ya están solucionados.

**Euskara**

Hala Bediko saioa dela eta, esan digutenez, hurrengo saio-grabazioa martxoan egingo da. Hala Bedikoek badituzte izena eman zutenen datuak, eta haiek deituko diete banan-banan data zehazteko.

Irakurketa kluba laster jarriko dugu martxan. Azken xehetasunak ari gara lantzen.

Sasoi aldizkariaren hurrengo alea kulturartekotasunari buruzkoa izango da. Ateratzear dago. Horrez gain, patio desberdin baten alde dihardüen taldearekin harremanetan

**Euskera**

Hemos recibido noticia de Hala Bedi: el próximo programa se grabará, probablemente, en marzo. En Hala Bedi ya tienen los datos de quienes se apuntaron en su día y desde allí se llamará a las familias para concretar fecha.

En breve se pondrá en marcha el club de lectura. Estamos ultimando detalles para lanzarlo.

En cuanto a la revista Sasoi, casi está concluido el número dedicado a la interculturalidad. Además de eso, estamos colaborando con el grupo que trabaja para lograr un patio

CEIP ZABALGANA HLHI
Nazio Batuak 10
01015 Vitoria-Gasteiz



gaude hurrengo ale bat horri buruzkoa egiteko.

Azkenik, eskola-komunitatearen errealitate linguistikoa ezagutzeko ikasturte hasieran egindako inkestak aztertzen ari gara. Behin betiko datuak izan bezain laster jakinaraziko ditugu.

**Hazi eta Hezi plataforma**

Datorren urteko matrikulazio kanpainan lan egin dugu. Arazorik larrienetako bat da beharrezkoa den hirugarren ikastetxea (Aldaialde). 20an batzarra egin zen gure ikastetxean auzokide guztiak informatzeko. Ikastetxe berria Mariturriko behin-behineko barrakoietan egongo da.

**Hizketaldiak**

Otsailaren 22an (astelehena) "Lehen sorospenak" hitzaldia egingo da, eta 24ean (asteazkena) "Umeen higienea"-ri buruz beste bat. Osasun zentrotik etorriko dira ematera.

diferente de cara al siguiente número.

Por último, estamos con las encuestas realizadas a principio de curso con el fin de conocer la realidad lingüística de nuestra comunidad escolar. En cuanto tengamos datos definitivos los haremos públicos.

**Plataforma Hazi eta Hezi**

Se ha trabajado en la campaña de matriculación del curso que viene. Uno de los mayores problemas es la necesidad de un tercer centro (Aldaialde). El día 20 se hizo una reunión informativa para todo el barrio en el colegio. El nuevo centro estará ubicado en los barracones de Mariturri.

**Charlas**

Hemos cerrado una charla de "Primeros auxilios" para el 22 de febrero (lunes), y para el 24 (miércoles) otra de "Higiene infantil". Las vendrán a dar del centro de salud.